

3/2004 Foru Aruak 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etoriz, aipatutako espediente hori hamabost egun baliodunetz egongo da jendaurrean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Esandako epean erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikoz onartuko da kreditu gehigarriaren espedienteaz.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Elciego, 2008ko abuztuaren 27a.- Alkate-lehendakaria, RAFAEL CRUZ SÁENZ CASTRO.

ELCIEGO

5732

Planeamenduko arau subsidiarioen hamalau aldaketa puntuali hasierako onarpena ematea.

Udalbatzak, bi mila eta zortziko abuztuaren hogeita seian egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Elciegoko planeamenduko arau subsidiarioen hamalau aldaketa puntuali, baita horien ingurumen eraginaren baterako ebaluazioari ere.

Horregatik guztiagatik, ediktu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera espedienteaz hilabetez egongo da jendaurrean, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak edo alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Elciego, bi mila eta zortziko abuztuaren hogeita zortzia.- Alkatea, RAFAEL-CRUZ SÁENZ CASTRO.

IRUÑA OKA

5724

Aldi baterako zerbitzuak (ordezkapenak) emateko langileak hautatzeko prozesua arautuko duten irizpide orokorrak ezartzen dituen arautegia behin betiko onartzea.

Iruña Okako Udalean aldi baterako zerbitzuak (ordezkapenak) emateko langileak hautatzeko prozesua arautuko duten irizpide orokorrak ezartzen dituen arautegiaren hasierako onarpenaren aurka ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onartuko da, baita argitaratu ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetze aldera:

1. artikulua.- Helburua.

Arautegi honek zera du xede, Iruña Okako Udalean aldi baterako zerbitzuak (ordezkapenak) emateko langileak hautatzeko prozesua arautuko duten irizpide orokorrak ezartzea.

2. artikulua.- Aplikazio esparrua.

Arautegi honetan jasotako araudia Iruña Okako Udaleko lanpostuetan aldi baterako zerbitzuak emateko edo ordezkapenak egiteko baino ez da aplikatuko, horietarako egingo den banan-banako deialdiarekin bat etoriz.

3. artikulua.- Lanpostuetarako lan poltsak

Lanpostuen premiak direla eta, edo lanpostuan egoteko epea igaro ondoren, kasuan kasuko lanposturako lan poltsa eratzeko deialdi berezia egingo da. Deialdi hori Arabako Foru Aldundiko Aldizkari Ofizialean, gehien zabalduko bi egunkaritan eta udaletxeko iragarki oholean argitaratuko da.

4. artikulua.- Betekizunak

Iruña Okako Udalak deitutako edozein lan poltsatan sartu nahi duen izangaiak lanpostuen zerrendek lanpostuetarako urtero ezartzen dituzten betekizun orokor eta bereziak bete beharko ditu; batez ere, titulazioa eta hizkuntza eskakizuna.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 3/2004, dicho expediente queda expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente, también hábil, a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno.

El Expediente de Crédito Adicional se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentasen reclamaciones.

Lo que se publica para general conocimiento y a los efectos oportunos.

En Elciego, a 27 de agosto de 2.008.- El Alcalde Presidente, RAFAEL CRUZ SÁENZ CASTRO.

ELCIEGO

5732

Aprobación inicial de catorce Modificaciones puntuales de las NN.SS. de Planeamiento.

Este Ayuntamiento Pleno, en su sesión ordinaria celebrada el día veintiséis de Agosto de dos mil ocho, acordó aprobar inicialmente catorce Modificaciones puntuales de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Elciego así como su correspondiente Evaluación conjunta de Impacto Ambiental.

Lo que se hace público a fin de que los interesados puedan examinar este expediente y formular las alegaciones que estimen oportunas en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de la publicación de este Edicto en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

En Elciego, a veintiocho de agosto de dos mil ocho.- El Alcalde, RAFAEL-CRUZ SÁENZ CASTRO.

IRUÑA DE OCA

5724

Aprobación definitiva reglamento por el que se establecen los criterios generales para la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal (sustituciones).

No habiéndose presentado reclamaciones contra la aprobación inicial del Reglamento por el que se establecen los criterios generales que han de regir la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal (sustituciones) en el Ayuntamiento de Iruña de Oca, el mismo queda aprobado definitivamente publicándose a continuación a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de Abril Reguladora de las Bases de Régimen Local:

Artículo 1.- Objeto.

El presente reglamento tiene por objeto el establecimiento de los criterios generales para la selección del personal que de ha de prestar servicios temporales para el E. Ayuntamiento de Iruña de Oca.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

La normativa contenida en el presente reglamento será únicamente de aplicación para la prestación de servicios temporales o sustituciones en aquellos puestos de trabajo del Ayuntamiento de Iruña de Oca de conformidad con la convocatoria individual que se efectúe de cada uno de ellos.

Artículo 3.- Bolsas por puestos de trabajo.

Cuando las necesidades concretas de un puesto de trabajo lo demanden o cuando haya transcurrido el plazo de duración de cada una de ellas, se procederá a la convocatoria específica de cada bolsa por puesto de trabajo concreto, que será publicada en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, en dos diarios de los de mayor tirada y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

Artículo 4.-Requisitos.

Los aspirantes a integrarse en cualquiera de las bolsas de trabajo que se convoquen por el Ayuntamiento de Iruña de Oca deberán de cumplir los requisitos generales y específicos que se exijan en la Relación de Puestos de Trabajo para cada uno de ellos, y de manera especial el referido a la titulación y al nivel del Perfil Lingüístico.

5. artikulua.- Lan poltsa automatikoak

Deialdiaren bidez plantillako plaza bat bete nahi denetan, legez ezarritako gainerako betekizunak betez gero, hautaketa prozesua gainditu bai, baina ez badute plaza betetzerik lortzen, plaza horretarako lan poltsa eratuko dute, eta guztira lortutako puntuak erabakiko dute hurrenkera.

6. artikulua.- Hautaprobak

Lan poltsetarako deialdiak egiten direnean, oinarriek ezarri beharreko proba teoriko eta praktikokoak ezarriko dituzte, plazak zein diren. Zerrendaren hurrenkera izangaiak lortutako puntuak oinarri eratuko da.

Gainera, oinarrietan epaimahaia nork osatzen duen eta zein gai sartuko den jasoko da; baita prozesua behar bezala burutu dadin kontuan izan beharreko beste edozein gauza ere.

7. artikulua. Antzeko beste zenbait plaza

Talde berekoak izan eta antzeko betekizunak dituzten plazetan ez badago lan poltsarik, beste plaza bateko lan poltsa erabili ahal izango da.

8. artikulua.- Beste administrazio batzuetako lan poltsak

Lan poltsa baten indarraldia bukatzen bada, edo diren direlako arrazoiengatik lan poltsaren bateko kide guztiek uko egiten badiote eskaintzari, eta premiazkoa balitz langileren bat nahitaez ordezkatzeara, beste administrazio publikoetako zerrendak erabili ahal izango dira.

9. artikulua.- Lan poltsen funtzionamendua

Iruña Okako lan poltsek txandak dituzte oinarri, izan ere, zerrendako lehenetik hasi eta azkenera arte hurrenkera jarraituko da, eta horrela, ezin izango da pertsona bera bi aldiz kontratatu harik eta zerrenda bukatu arte.

10. artikulua.- Eskaintzari uko egitea edo eskaintza ezin onartzea

1.- Deia jaso duen pertsonak ezin badu justifikatu ezin daitekeela kontratua sinatzera agertu, zerrendatik baztertuko da.

2.- Arrazoirik badagoela ulertuko da, baldin eta lanpostu finkorako kontratua sinatu bada edo kontratua mugagabea bada; baita 12 hilabete baino gehiagoko aldi baterako kontratua edo obra edo zerbitzu jakin baterako kontratua sinatu bada ere, eta produkzio edo lan gehiago badago.

3.- Halaber, arrazoirik badagoela ulertuko da, baimen edo lizentziarik izanez gero. Hartara, UDALITZek edo Iruña Okako Udalaren lan hitzarmenak justifikatutako arrazoiengatik lanpostura ez agertzeagatik jasotako kasuak aplikatuko dira.

11. artikulua.- Irapena

Lan poltsa bakoitzak, gehienez ere, 5 urte iraungo du, eta berriz ere hasiko dira, epe horretako azken urtera arte iristen badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea gorabehera, zerrendaren bati hiru itzuli emanaz gero, betetzat joko da, eta beste deialdi bat egingo da.

Iruña Oka, 2008ko abuztuaren 26a.- Alkate-Lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

KUARTANGO

5717

2009ko udan udal igerilekuak eta bertako taberna ustiati, kudeatu eta mantentzeko lehiaketa.

Kuartangoko Udalak, 2008ko uztailaren 31ko osoko bilkuran, 2009ko udan udal igerilekuak eta bertako taberna ustiati, kudeatu eta mantentzeko lehiaketa arautuko duen baldintza ekonomiko eta administratiboen agiria onartu zuen. Agiri hori udal idazkaritzan jarriko da ikusgai zortzi egun baliodun, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Egunotan erreklamaziorik aurkezten ez bada, agiria behin betiko onartutzat joko da.

Artículo 5.- Bolsas automáticas.

En los supuestos en los que se procede a cubrir una plaza de plantilla mediante la correspondiente convocatoria y cumpliendo el resto de requisitos legalmente establecidos, los aspirantes que habiendo superado el proceso selectivo no sean nombrados para la plaza o plazas constituirán bolsa de trabajo de la citada plaza por el orden de puntuación final.

Artículo 6.- Pruebas selectivas.

Siempre que sean convocadas bolsas de trabajo, en las Bases de las mismas, y dependiendo de la plaza o plazas concretas, se establecerá la realización de las pruebas teóricas o prácticas que se consideren oportunas, en cuyo caso será el orden de puntuación el que configure el orden de la lista.

Asimismo, en dichas Bases se fijará la composición del Tribunal, temario y cualquier otra condición o previsión para el correcto desarrollo del proceso.

Artículo 7.- Plazas similares.

En aquellas plazas que pertenezcan al mismo Grupo y que tengan funciones similares, en el supuesto de que para una de ellas no exista Bolsa de Trabajo se podrá utilizar la de otra plaza.

Artículo 8.- Bolsas de otras administraciones.

Si agotado el plazo de vigencia de una bolsa o si por cualquier circunstancia renunciarán todos los integrantes de una de ellas, si de forma urgente fuere necesaria la sustitución de un trabajador se podrán utilizar las listas existentes en otras administraciones públicas.

Artículo 9.- Funcionamiento de las bolsas.

Las bolsas de trabajo del Ayuntamiento de Iruña de Oca seguirán en su desarrollo un sistema rotativo por lo que empezando por el primero de la lista seguirá el orden correlativo hasta su finalización, por lo que no se podrá contratar a la misma persona dos veces hasta que no finalice la lista.

Artículo 10.- Negativa e imposibilidad de atender el llamamiento.

1.- En el supuesto de que la persona que es llamada no justifique la imposibilidad de acudir a suscribir el correspondiente contrato será automáticamente excluido de la lista.

2.- Se entenderá que existe causa justificada en los supuestos de haberse suscrito un contrato de trabajo fijo o indefinido o un contrato temporal o eventual de duración superior a 12 meses o de contratos por obra o servicio determinado y por circunstancias de la producción o aumento de tareas.

3.- Igualmente se considerará causa justificada el encontrarse en alguno de los supuestos de permisos o licencias, aplicándose por analogía los casos de ausencia justificada del puesto de trabajo recogidos en el UDALHITZ o Convenio que resulte de aplicación al Ayuntamiento de Iruña de Oca.

Artículo 11.- Plazo de duración.

Cada una de las listas o bolsas de trabajo confeccionadas tendrá una duración máxima de 5 años, reiniciándose las mismas si durante dicho plazo se llega al último de cada una de ellas.

Con independencia del plazo establecido en el párrafo anterior si alguna de las listas se completara tres veces se entenderá cumplida la misma y se procederá a una nueva convocatoria.

En Iruña de Oca, a 26 de agosto de 2008.- El Alcalde-Presidente, D. JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA.

KUARTANGO

5717

Concurso para la explotación, gestión y mantenimiento de las instalaciones de las Piscinas Municipales y del bar durante la temporada estival 2009.

El Ayuntamiento de Kuartango ha aprobado en sesión de 31 de julio de 2008 el Pliego de condiciones económico-administrativas que regulan el concurso de arrendamiento para la explotación, gestión y mantenimiento de las instalaciones de las Piscinas Municipales y del bar durante la temporada estival 2009, quedan expuestos al público en la Secretaría municipal durante ocho días hábiles, a efectos de examen por los interesados y en su caso presentación de reclamaciones, quedando los pliegos definitivamente aprobados en caso de que aquellas no se produzcan.